



AKELARRE - N. Basterretxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN




MAHATSERRIKO AID ZKARIA


berria

2000ko AZAROA 27. zkia.
125 pzta.

Lege Gordailua: BI-85-98



Angel Zelaieta
Mahatsorriak
Gabriel Arestiren
bizia eta lana
bildu du



"Gabriel Aresti (biografia)"
Angel Zelaieta
2000, biografia



Santutxuko IV.Txalaparta egun
entzutetsuak lau txalaparta
eskolako kideak batu zituen

David Barbero

**«Gaur egun oso zaila da
kazetari lana modu independente
eta interesgarrian egitea»**



Begoñako kanposantua 1874. urte aldean

Oraingo honetan Zazpi Kaleetako Euskal Museoko argazki erakusketako bitxi bat dakargu aldean. "Bilbao 1860-1895" lelopean Pedro Telesforo Errazkinek egindako erretratuetarik bat dogu goiko hau. Ezkoialdean Begoñako kanposantua ikusten dogu, gaur egunean be zutunik dirauen kanposantu bera. Jakina, inguruek guztiz kanbiatuta dagoz, gaur egun etxeak altxaten diran aldean soloak, ortuak eta larreak baino ez doguz ikusten.

Hori bai, kanposantu ondotik, gaur egun legez, Begoñako eleizarako bidea agertzen da, harrizko hesien artean. Beheragoko zipresak Mallonako kanposantukoak dira. Ganera, Artxandako mendiak eta Abando zein Bilboko etxeak ikusten dira.

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Martínez,
Joana Etxebarria,
Irene Berro,
Iratxe Ruiz,
Leire Altamira,
Erdoitza Martínez
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta

Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKE-TAZIOA:
Iñaki Berastegi.


KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia,
Itxaso Perez,
Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde,
Igor M. de Vidales,
Santutxuko Bertso Eskola,

Igor Zorrozu,
Iñaki Aurrekoetxea,
Joseba Zelaia,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoe-txea.

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.000



▶ Betikoak	2	▶ Inkesta	19
▶ Iritzia	4	▶ Mahatsberriak	20
▶ Ttakun - Ttan - Ttakun!	5	▶ Hezkuntza	24
▶ Txixiribitz taldea	8	▶ Mendi Ibilbidea.	27
▶ Mahaingurua	10	▶ Kultura: Angel Zelaieta	28
▶ Begoña eta Euskerea	12	▶ Horoskopoa/Agenda	30
▶ Bakarka: David Barbero	15		

25 urte ditz "ha" tragau zala. Ha txikidxe, ankalaburre. Ta ha tragau, ta asko, poztu. Ta orduen periodikue hartu ta danak negar baten anpulueta ito biharrien. Joder, ba, danak ez dabiltezel holan pentsaten gendun. Ta honeik kontaten doskuena... Bueno, ba igual hamendik aurrera baten batek beste zeozer kontako dosku.

Ta, handi gitxire, batzuek hasi ziren gauzek beste era batera kontaten, ta lehen esaten ez zirenak esaten ta holan. Hasta andrak lehenengo, eta handik urte askora, gizonak bere hasi ziren biluzik ataraten. Joder! -Pentsau gendun-, ba orain gauzek kanbiaten dagoz. Inoxente koittadue! Andra ta gixoneri arropie kendu bai, baie kendu bier jakonari ondiñokarren gitxi atrebiduten direz kenduten. Ta orain bere, periodikue koiu ta idxe danak kontaten daurie bardine, ta kontaten daurie goikoari interesaten jakona, lehenengo modure, bardin-bardin. Tristie ba periodistien

biximodue gero! Kontau biher dozuz gauzek baie ez pasaten direzen modure, harek kontatie gure dauen modure baino.

Berton-en dana dala kontaten direzenak ez direz haren interesekoak, ta honeik gaztiok ez daukie problema handirik kontateko hamen pasaten direzenak: ba, umiek eskolatik aparte gauzek euskeraz egin deiezen taldie egin dauriela, Txixiribitz edo halango zeozer (porsierito, bada-ki inork zer esan gure dauen?) Beste batzuek egurre joten ibili ziriela lehenengo hilien Santutxu erdidxen (joten batzuk, eta baten bat emoten bere ibiliko zan...), Otxarkoagan tenderoak ez dakit zertan dabiltezel... Zer nabil kontaten? Joder, Berton-en leidu dotena, jakin gure badozue leidu zeuek bere bai, zer pentsaten dozue ba? Ni David Barbero nazela, ala? Porsierito, horrek bere kontaten dittuz batzuk oraingoan. Leidu ba!

AEK AURRERA. EUSKARA AURRERA

Garzon epaileak azken autoan egindako salaketen inguruan, AEK elkarteak honako hau jakinarazi nahi dio euskal gizarteari:

1. AEK-k ez dauka inolako loturarik ez ETArekin, ez eta euskararen irakaskuntza eta promozioarekin zerikusirik ez duten bestelako erakundeekin ere.
2. Autoan agertzen diren 19 lagunen artean batzuk AEK-ko kideak dira, beste batzuk AEK-ko kideak izan dira eta orain ez daude, eta zenbaitek ez du inoiz inolako harremanik izan AEKrekin.
3. AEKren egiteko nagusia EUSKARA irakatsi eta gure hizkuntzaren zabalkundea sustatzea besterik ez da. Horrez gain, bestelako egitasmoak abian jarri ditugunean, xede horiei begira edo gure ohiko jardueran aurrera egiteko baliabide ekonomikoak eskuratzearren bideratu ditugu.
4. ETA erakundearekin zerikusirik ez dugula argi dago, eta epaileak egindako bestelako salaketen gainean, honako puntuak argitu nahi ditugu:

· AEK-k ez du inolako langilerik izan, harik eta Eusko Jaurlaritzarekin AEK-ko kideen laborantzio prozesua bideratzeko hitzarmena izenpetu zen arte.

- Langilerik egon ez bada, nekez egin dakiok iruzurrik Gizarte Segurantzari.
- BEZari dagokionez, nola egongo da ordaindu barik, bada, irakaskuntzan ari den erakunde batek ordaindu behar ez duen dirua? (irakaskuntzari loturik dauden jarduerak ez dute, legez, BEZik sortzen).

Hau guztia kontuan hartuta, inoiz baino ozenago aldarrikatu nahi dugu gure errugabetasuna. Izan ere gure delitu bakarra euskaltzale izatea baita, hori inoiz delitua izan bada.

Azkenik, zera eskatu nahi dizuegu, orain arte bezala segi dezazuen euskal kultura eta gure hizkuntzaren defentsan. Bakoitzak egin dezakeen ekarpena eginez, euskara ikasiz, euskara erabiliz, euskaraz bizi ahal izateko bideak zabalduz,...

Guk gure aldetik, ahal dugun guztia eta gehiago egingo dugu eraso politiko-judizial honetatik indartsuago ateratzeko eta gure eguneroko lanean, euskara irakatsi eta sustatzen, segitzeko.

AEK

ZURE ELKARTASUNA: elkartasuna@aechnet.net

Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

hartu bertonean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
Abizenak:
Kalea: Zenbakia: Solairua:
Herria: Herrialdea: Posta Kodea:
Telefonoa:
Bankua:
Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura

TTAKUN - TTAN - TTAKUN!

Santutxuko IV.Txalaparta egun entzutetsuak lau txalaparta eskolako kideak batu zituen



Gazte txalapartariak Santutxuko kaleetan makillkadaka

Santutxuko laugarren Txalaparta Eguna Sestao, Barakaldo eta Usansolo eta bertoko txalaparta eskoletako kideak batu zituen azaroaren 11an. Jaialdi polita eskaini zuten ehunka lagunen aurrean Txahal Aparta taldearen deialdiari erantzun zuten txalapartari iaioek

Testoa: Iratxe Ruiz

Argazkiak: Iñigo Azkona

Goizeko lehen orduetatik euskal doinuak entzuteko aukera izan genuen Santutxuko kaleetan barrena. Hamaiketarik aurrera Santutxuko txalapartariak karrikan ziren eta geroago gaitero eta txistularien kalejira antolatu zen. Eguraldi ona egon zen (azkenean! ez iraganeko urteetan moduan) eta jendearen hurbiltzea erraztu zuen honek. Arratsaldeko partean eta bostak inguru, umeentzako tailerrak jarri zituzten Karmelo plazan. Txalaparta pare bat eta umeak zuraren kolpeek eragindako musikaz gozatzen aritu izan ziren denbora luzez. Eguneko momenturik eta bitxiena kiritoketariak eta sagarraren birrinketa izan zen dudarik gabe. Antzineko garaietan sagarren zukuia lortzeko erabiltzen zituzten prentsa eta tramankulu oro plazan ezarri zituzten eta sagardoaren bilakaera ezagutzeko aukera izan genuen.

Esan behar gerturatu zirenek zukuia dastatzeko aukera ere izan zutela!

Triki-alboka poteoa eta iluntzeko bederatziak aldera Bizkaiko txalapartari eskolen ordua. Barakaldo, Sestao (saio bikaina sestaoarrena), Usansolo eta Santutxuko eskolek jo zuten, nahiz eta Madrilgo taldea bebai iragarrita zegoen.

Hamarrak pasatxo zirela eta Karmelo plazako eskenatokian Txalaparta kontzertuak eman ziren. Gau giro aparta zegoen eta antolatzaileek (Txahal Aparta taldea) txorizo eta sagardo eskaintza luzatu zuten afaltzeko ordua baitzen!

J.M Beltran Argiñena boskotea, 'Gogoaren bidezidorretatik' eta 'Etsak-etsi' talde galdakaotarrak beraien musikaren zantzia utzi zuten larunbat gau epel hartan.

D A T U G U R E A

E I T U !

Azaroaren 10ean Juan Mari Beltranen hitzaldia Sorgintxulon

"Lan erritmoetatik musikara" izenpean txalapartari gipuzkoarrak euskal musikaren inguruko berbaldia eman zuen. Euskal folkloreaken doinuen berri eskaini zuen eta **BERTON** izan ginena:

"Durunbele-Alakiketa: Euskal herriko musikan gure egunetara bizirik iritsi den bitxikeri interesgarrietariko bat 'txalaparta' da. Bertan, nahasturik agertzen zaizkigu munduko beste kultura zaharretan bezala, musika, festa eta lana. Euskalerriko ohitura tradizionalen izen eta joera ezberdinekin agertzen da. Hemen, horietariko bitan, Urumealdeko ttakun ttan ttakun eta Baztan-Bidasoaldeko kirikoketan oinarriturik osatu dugu joaldia.

Hasteko, eta tradizioz egiten zen bezala, adar joaldia entzuten da, segidan txalaparta eta bere erritmo gainean Larraungo artzainek sunpriñuekin ematen zuten 'durunbele', kirikoketak kolpeekin batera duen hitz-joku silabikoa, 'alakiketa' eta bukatzeko Oiar-tzungo bailaran ote jotzerakoan egiten den jokoan oinarriturik hiru txalapartarien arteko joaldia.

Sagar dantza: Arizkongo sagar-dantza hau lhaute-rietako dantza bat dugu. Urte askotan aritu zen Maurizio Elizalde bertako txistulari zaharra, ihauterietako egun hotz, ilun eta haizetsu haietan dantzarien atzetik, txistu eta danbolina jotzen. Dantzak bi zati ditu; lehena 'aire librean', horretan joleak interpretazioarekin batera sormena lantzen du oinarritzko doinuarekin jolastuz, eta bigarrena erritmo metriko, finkatuago eta egina-goan jotzen da. Txistu hotsa entzuten hasi aurretik, txalapartak egindako burrun hotsek girotzen

dute inguru horietako neguko giroa.

Aire malguan: Txalapartari zaharrendik ikasitako 'ttakuna' eta 'errena', bi txalapartarien arteko joku-borroka, hau da, oreka-desoreka, erritmo desegitea-egitea, ordena-desordena dugu joaldi honetan nagusi, erritmo aldakorra eta malguan.


Banango zaharra: Txistu eta danbolinaz jo izan dira dantza hauek Bizkaia aldean. Guk, horrez gain, txalaparta eta bestelako soinu-tresnen laguntzarekin ematen dugu erritmo berezi eta interesgarri duen dantza hau.

Zuretatik burnira: Bi izan dira tradizioan txalaparta jotzeko ezagutu ditugun materialak: zura eta burnia. Azken garaian, txalapartari berrien artean eman den hots berri bilatze horretan material desberdinak erabili izan dira eta hauen artean harriak. Guk hemen hotsen arteko erlazio eta berezitasunak landu ditugu, materiaren prozesu geologikoa jarraituz; hasieran zura, gero inguruaren eraginez harria bilakatzen da eta bukaeran burnia.

Fandango aparta: Bi izan dira nagusiki gure herrietako plazetan egin diren dantzak; fandangoa eta arin-arina. Gehienetan biak elkarturik, bata bestearen ondorengatik, neska eta mutilak, gizonezkoak eta emakumezkoak harremanetan jarri eta elkartzen zitezutenak. Txalapartak ematen du, bere modu berezian, albokaren fandango eta arin-arin berri hauetan base erritmikoa.

Txinparta: Txistu eta txalapartarako egindako zazpiko erritmoko dantza.


Martxa errena: Txalaparta eta albokarako egindako martxa-dantza."



Neska-mutil txalapartariak euren trebezia erruz erakutsi zuten

Ondoko orrian:
Goian: Txalapartaren erritmuak jaun eta jabe Santutxun egun batez

Behean:
Musikaz gain herritarrek euki zuten zertaz gozatu



JOAN MARI BELTRAN BOSKOTEA


Juan Mari Beltran Argiñenak txanbela, adarra, txalaparta, txistu-danbolina, xirula-ttuntuna, dultzaina eta alboka jotzen ditu. Boskotea osatzen dute: Iñigo Monreal Almandoz (txalaparta, adarra, djembe), Felipe Ugarte (txalaparta, adarra, panderoa), Iñigo Lurgain (akordeoia), eta Aitor Gabilondo (ahotsa, gitarra).

Euskal musikaren alde betidanik aritu izan da Juan Mari. 1947.ean Donostian jaiotako herri musika musikaria, jole ikertzaile eta irakaslea dugu. Bere bizitza ikusiaz Euskal herri musikaren zale, bultzatzaile, jakitun eta figura garrantzitsuenetariko bat dela esan dezakegu.

Gaztetatik herri musikan murgildurik izan dugu, 11 urtekin Etxarri Aranatzeko txistu taldean eta Udal Musika bandan klarinete jolea zen eta 16 urteetarako Argia taldean genuen. Garai hartan besteak beste Zuaznabar eta Goikoetxea txalapartari, Txilibrin, Patxi Gorrotxategi eta Leon Bilbao albokari, Ansorena eta Elizalde txistulari eta Gipuzkoako dultzaineru zaharren testigantza jaso zuen, geroztik ere konstante bihurtu den lan batean: musika, musikari eta instrumentu informazio bilakatze eta ikerketa.

Zenbait taldetan partaide izan da, Ruiz Balerdik sortutako musika garaikide taldean, 'Sustraiak', 'Azala' edo 'Txanbela'. Gaur egungo bere taldea 'J.Goikoetxea-J.M Beltran' bikote gisa egindakoa. Talde hauekin zenbait diska grabaturik ere baditu.

Gaur egun bere bizian zehar osatutako herri-musika



materialen bildumarekin (soinu-tresna bilduma, biblioteka, fonoteka eta irudi artxiboa-argazki eta pelikulak), "Herri Musikaren Txokoa", Herri musikaren dokumentazio zentroa antolatzen ari da Oartzunen, bertako Udalaren laguntzarekin.

BAKEA POSIBLE ETE?

KRISTAU TALDEEN ESKUTIK JONAN FERNANDEZ, RAFA DÍEZ ETA JOSE MARI DELCLAUX
BAKEGINTZAZ JARDUN ZIRAN

**BAKEA POSIBLEA DA! Hori uste dabe Maria Reina elizako aretora hurbildu ziran ehun-
ka**

**pertsona eta mintzaldia eskeini euskuen hiru hizlariak: Jonan Fernandez, Elkarriko
bozeramailea; Rafa Diez Usabiaga, LABeko idazkari orokorra; eta Jose Mari Delclaux,
"Bakea eta Adiskidetze" Elizbarruti batzordeko ordezkaria.
Hitzordua Santutxu-Boluetako kristau komunitateek antolatu eben.**

Testoa: Erdoitza Martínez
Argazkiak: Iñigo Azkona



Jonan Fernández, Elkarriko arduraduna

Euskal Herrian bizi dogun egoeraz ihardun eben bi ordutan zehar, bakoitzak bere ikuspuntuak, iritziak eta konponbideak mahai gainean jarriz, honako lau puntu garrantzitsutan sustatuz euren adierazpenak: Euskal Herrian pairatzen dan gatazkaren nondik norakoen interpretazio pertsonala, bakerako oztopoak eta aurrebaldintzak, istiluaren konponbiderako beharrezkoak doguzan elementuak eta eskuhartzea daukaten erakundeei, zein herriari berari eska daikeegun jarrera berradiskidetze prozesuan.

Jonan Fernandez hasi zan mintzatzen. Bere hitzaldian hiru epe azpimarratu ebazan: ETAK tregua aldarrika-

tzean sortutako iraganeko itxaropena, su-etena gertatu zanetik hona jazo dirazanak, eta azkenik, etorkizunari begirako gogoeta. Bere ustetan, Euskal Herrian hainbat aldaketa esanguratsu nabarmendu ziran lehen epearekin batera: indar politiko aberzaleen arteko hurbilketa, gobernu zentralaren jarrera immobilistaren areagotzea "-ezer ez egitea eta ezer egiten ez uztea", gizar-tearen sentibilizazio prozesua... Azken hau izan zan Elkarriko bozeramaileak azpimarratu ebana "faktore positiboena" bezala. Zergaitik? Orain artean ezagaturiko bipolaritatearekin amaitu zalako, hots, garai hartan gure herrialdeko gatazkan ETA eta Gobernu Zentralarekin batera herria agertuko dalako, esperantzari bide emanik.

Haatik, behin su-etenarekin hasitako prozesuak aurrera egingdakoan, nolabaiteko geldialdia nabaritutako da. Euskal Herriko erakunde anitzek burutako eskaerak eta garatutako proiektuek ez dabe inolako erantzunik jasoko Madriletik. Jonan Fernandezek hitzetan "zenbait alderdi politikoren immobilismoa nekagarria suertatzen da, prozesua ez doa ez aurrera ezta atzera ere, inolako soluziorik ez da plazaratzen geldirik jarraitzen dabezenen partez". Ilusioz beterikoko ibilbidea moztu egiten da, su-etinari etekinik atera ezinik.

Besterik ere esan zuen Elkarriko kideak. Hitzarteari amaiera emoteko, gauzak modu egokian bideratzeko eta bakea lortzeko bere ustez jarraitu behar dirazan prozedurak aipatu ebazan: "biolentzi-eza eta gizatearen errespetua" faktore ezinbestekotzat beza-

**"Gure herrialdeko
gatazkan ETA eta
Gobernu Zentralarekin
batera Herria agertuko
dalako, esperantzari
bide emanik"**

la, "bazterketarik gabeko elkarrizketa" nahitaezko abiapuntu moduan eta gizar-teari zor zaion atentzioa (demokratikotasuna) proposamen eraikitzaile nagusitzat. "Lau puntuok jarraitu ostean litekeena da emaitza bakea izatea", adierazpen hauekin eman eutson Jonan Fernandezek bukaera bere hitz jarioari.


BORTIZKERIA ZURIA

"Bakea beharrezkoa da. Bakea nahi dogu. Baina bakea eraiki eta zaindu behar dogu". Honela hasi zan Rafa Diez hizketan, "hainbat urtetan bake bila ibili dan" Euskal Herria gogoan izanik, Francoren epetik hasita gaur egunerarte mantendu dan "etengabeko borroka" gogora ekarriz. Berak azaldu eban egia dala bake-ezaren egoeraren arrazoi bat ETAREN borroka armatua dala, baina biolentzia honetaz gain ezin garela ahaztu ikusten ez dan biolentziaz, hots, biolentzia zuria" delakoaz, "gobernuak bere garbigailuetan xahutzen dauana". Hizlariaren aburuz, "espainiar gobernuarentzat bakea ez da helmuga, Euskal Herriaren zapalkuntzaren ondoren helduko dan fikziozko egoera baizik".

"Balore-erregela multzo baten emaitza eta justizi, elkarbizitze eta hartutako konpromisoena izan behar da bakea", adierazi eban Rafa Diezek. Horretarako, ahalbait azkarren bakera ailegatzeko, LABeko idazkari orokorrak ondorengo ideiak azpimarratu ebazan ezinbestekotzat: "biolentzia egoera baten atzean egonezin politikoa dagoela onartzea, Euskal Herriak bere inguruko herrialdeekin mantenduko dabezan erlazioak aukeratzeko subiranotasuna eta elkarrizketa, negoziazio eta akorduen erabilera beharrezkoa". Hiru ideia hauei jarraikiz bakarrik izango da posiblea, "bakea=konstituzioa ideia bazterturik", euskaldunok nahi dogun bakera iristea.

GIZARTEAK DAUKO GILTZA

"Bakea eta Adiskidetze" Elizbarruti Batzordeko ordezkariaren partehartzearekin bukatu zan mintzaldia. Elizaren egoera arazo politiko honen aurrean, berak azaldu euskun legez, nahiko konplexua da eta zeozer



Rafa Díez Usabiaga, LAB sindikatuko idazkari nagusia

esatea eskatzen zaionean ez daki zer esan. "Esaten dana gaizki ulerteratzen baita edo manipulatzan dabe". Zer da honen aurrean Elizak egin behar daukana? Joxe Mari Delclauxek adierazi eban giltza gizarteak daukala, gizarte osoak, eta ez Elizak berak. Horre-

**"Bakea beharrea da. Bakea behar
dogu. Baina bakea eraiki eta
zaindu behar dogu"**

la, eta amaitzeko hiru elementu garrantzitsuok aipatu ebazan: biktima guztien minaz arduratu, ez ahaztu inoiz euskal gizartea gizarte anitza dala eta gizarte osoaren egia osoa ezagutzeko eskubidea. Hiru gonbidatu hauen esan beharrezkoak entzun ostean argi geratu zan esperantza galtzen dan azkenengo gauza dala, eta horrekin batera aurrera jo behar dogula geure helburua dan bakea lortzeko. "Bakea, heltzen zarenean asko zainduko zaitugu, izerdi eta odolez lortutakoa izango baitzara, heriotzarekin menperatutako biziak izango baitzara. Bakea..., gauaren bukaeran helduko zara, egunsenti berri bat iragartzen." Juan María Olloraren "Una vía hacia la paz" liburua- ren hitzaurrea.

Epifanio Aiesta, dimeztarra da baina txikitatik bizi izan da Morroko Meategiko etxean, orain dala 10 urte inguru bota eben arte. Euskera gitxi daki eta berbete jarria dauka, berak dinoan legez, "aita oso isila zan eta nik ostera barritsu urten dot". Morroko meatzaren istorioa ondo ezetuten dau, bertan hainbat urte bizi izan dalako.

Begoña eta Euskerea

I. Gaminde, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

Morroko Meategia

Berton.- Zelan heldu ziran Morroko meategira?

Epifanio Aiesta.- 1926ean jaio nintzan eta 28 inguruan ekarriko ninduen. Gure aita ezkondu zanean, hemen bizi zan eta ordurako Lezama Legizamonegaz beharrean ibilita egoan. 1920 inguruan egingo zan meategiko enkargadua eta aurretik, gure osaba Joakin Aiesta egoan. 1930 inguruan lotu egin zan meategia baina Pedro Gandarias jaunak, Jainkoari esker gure aitari gutun bat idatzi eutsun: "Juan Jose, ni bizi nazen artean, zeuk etxeke terrenoak disfrutatu zeinkez" esanez, eta jarraitu eban han biziten. Aita Aztegietakoa zan eta oso isila baina dohai bategaz jaio zan, aginduten ekiela.

B.-Nor zan meategietako uzabea?

Epi.- Juan Olabarriaga jaunarenak ziran, berau Arrazolakoa zan, lehenengo aitarenak eta gero semearenak.

B.-Soziedadeko akziodun nagusiak ziran?

Epi.- Ez, Olabarriagak meategia ustiatu egiten eban. Soziedadea, Compañía Minera Morro de Bilbao zan, gerra aurreko zuzendari gerentea Luis Barreiro jauna zan.

B.- Zeintzuk ziran meategiko terrenoak?

Epi.- Amaieran 50.000 m² inguru genduzan, baina lehenago Boluetaraino ailegaten zan El Correo dagoan lekuraino, parke mobileraino eta ni bizi nazen Karmeneko terreno guztiak, Miraflores, el Markesito izandako araino meategiarena zan eta Iralabarrin be egon ziran terrenoak, franziskanoen goiko aldean.


B.-Zenbat behargin egozan?

Epi.- Gerra aurreko denporatan, hirurehun eta piku eta hogeita hamar zalditik gora bagoietatik tiratuteko, eta gerra ostean Olabarriaga gure etxera etorten zan eta



Orain dala hiru urte bota diran meategiko azken etxeak. Aurrean garajea eta almazena etxea eta atzean tailerra eta korten etxea

aitari itanduten eutsun "Juan Jose mineralik ba dago? Eta aitak erantzun "bai". Gero, besteak dirua imini eban, nik badakit lagundu eutsanak, guzti hau 40. urtearen inguruan izango zan eta meategia hiru langilegaz hasi zan eta hogeitik gora eukiteraino heldu zan, gehienak gaileguak ziran eta oso langileak. Minerala 70. arte atara zan gitxi gora behera. Gure aita 63an hil zan, urte bat lehenago meategia itxi



Meatzek eragindako zuloa ez zan txantxetakoa

egin eban, ordurako Lemoako zan Bezuen izeneko enkargadu bat imini ebalako eta meategiak 70. arte segidu eban.

B.- Meategiko zaldiak non egozan?

Epi.- Herenegun Toliba albaitea hil zan eta berak esan ahal izango eutsun, korta eder batean 30 pertxeroi egozan, leihoak, guztia zan Holandako pinua, pinotea, habeak behar bada txaleten batera eroango ebezan. Gerra ostean 8 zaldi egozan. Olabarriaga semea zaldizale amorratua zan, ekitazioa ikisten Madriden egon zan. Ordurako ez egoan pertxeroirik, gerra aurretik Frantziara joaten zan eta urte gorriko prezioetan erosten ziran pertxeroiak, gerra ostean ijitoei erosten jakeezan zaldiak.

B.- Garai hareetan zelan ustiaten zan meategia?

Epi.- Harrobi motakoa zan, meazuloak egozan eta oindino topatu ez diran meazuloak dagoz eta arrazoia esango deusut, Euskal Gobernuak kaiku hutsak izan dira eta frogatu daiteken zera dago: Une honetan etxeak egin dabezan lekuan, beheraino eta Bilboko ibairaino joian erregistro bat egoan. Hori hartu behar izan zan saneamendurako, ezta okurritu ere! Ba milaka milioi gastatu dira. Eta beste meazulo bat dago, oraindik guztiz jausi barik egongo dana, meazulo bi baino ez egozan, bata, alde batetik bestera pasateko bagoiak erabilten zana eta bestea beheraino eta ibairaino doan erregistroa zan.

B.-Bagoiak minerala ataraten ebanean nora eroten eben?

Epi.- Morroko meategiko eskolen ondoan, airez joi balde-kargalekua egoan. Bestalde gerra osteko mineral

kargalekuak egozen, bagoi bidez joaten zirenak, Ollerias aldea inguruan kargaten ziran. Hor, kamioiak kargaten ziran eta baita Atxuri eskolen atzean zegoen moilan eta trenez gipuzkura eroaten zan. Gerra aurretik, Ingalaterrara be eroaten zan.

Ni ez nintzan meategietaz arduratuten Bilbon egiten neban behar eta, nik behiak jagoten nebazan eta hamalau hamabost urtegaz zaldiz ibiltzen nintzen, ni zaldi batean eta patroia beste batean eta Galdakaoraino joaten ginan kamino barritik, orduan barria zan eta ez ibilen auto bat ere ez.

B.- Nahiz eta gerra denporatan gaztea izan, gogoan daukozu zelango eragina euki eban gerrak meategian?

Epi.- Nik 10 urte neukazan. Gauza bakarra esango deusut, Bilboko aterpe guztiak, gure aitak egin ebazan.

Adibidez, Stos. Juanesekoa Simago dagoen lekuan, ni umetan joaten nintzan, alde batetik sartu eta bestetik urten, seguruenik Simago egongo da aprobetxaten. Beste bat, Kantera kalean, beste bat Ronda kalean ereikin bat botaten dabizen lekuan

eta urteten da Patronatoko patioa eta beste bat Zabalbiden, espilua egoan lekua baino apur bat gorago.

B.- Zelango erremintak erabilten ziran orduan meategian?

Epi.- Gerra aurrean hondeamakina elektriko ingeles batzuk ezagutu nebazan, motor guztiak ingelesak ziran. Meategiak enkargadu eta listeroaren etxea eukan, gure etxera Sagarmingana 2tik sartuten zan eta atzekaldetik meategira urteten zan, han kortak egozan eta ganadua geneukan. Umea nazela, gure aitak ereisten ebazan behiak.

B.- Esneagaz zer egiten zenduan, etxeetan banatu?

Epi.- Ez, etxera etorten ziran erosten. Ni ez nintzen ezetaz arduratzen, bizi besterik ez neban egiten. Ezkondu osterarte ez nebazan behiak ereisten.

B.- Segidu zenduan han biziten?

Epi.- Ni bizi izan naz han, orain dala 10 urterarte, meategiko etxea bota arte.



Epifanio Aiesta

Berton: Zelan definituko zenuke zure burua, kazetari, komunikatzaile edo antzezlan idazle bezala?

Beno nik lan gehiago egin dut komunikatzaile edo informatzaile bezala, beraz, kazetaritza da nire lehendabiziko jardura. Dena den, honetaz gain antzerki lanak ere idazten ditut baina ez dut uste bi hauek oso desberdinak direnik, antzerkia komunikazio bitarteko gisa definitu baitaiteke.

Berton: Kazetaritza ikasketak amaitu eta zein izan zen zure ibilbide profesionala? Zelan heldu zinen telebistara?

1982ko udan Deian lanean ari nintzela Amatiñok deitu egin zidan. Amatiño nirekin batera ibilia zen Deian baina jada Eusko Jaurjaritza zegoen, Kultura Sailean hain zuzen. Honek telebista autonomiko bat sortu behar zutela esan zidan. Ordurako nik banuen proiektu haren berri baina ez nuen uste niri ezer proposatuko zidatenik euskara hutsean izango zen telebista zela pentsatzen nuelako. Baina ez zen horrela izan. Entrenimendua euskaraz emititzeko beharra zegoen artean ez zegoelako hizkuntza honetan halako eskaintzarik baina informazioa bai euskaraz bai gazteleraz izan zedin pentsatu zuten. Bertako iturri informatiboez elikatutako informazio iturriak eta bertako irizpide batez landutako albistegiak eskaintzeko premia zegoela uste zutelako.

Orduan nik ETBn lan egiteko eskaintza onartu nuen. Ni Deian "jefe de sección" nintzen eta ETBn ekonomikoki eskaintzen zidatena Deian jasotzen nuena baino gutxiago izan arren Amatiñok

eginiko proposamena onartu nuen esperientzia izugarri interesgarria iruditzen zitzaidalako.

Geroztik ETBn izan naiz lanean bi urtetan izan ezik. "El Mundo del País Vasco" egunkaria sortuko zela eta hau eratzeko eta zuzentzeko lana eskaini zidaten. Esperientzia polita iruditu eta bi urteko eszedentzia eskatu nuen baina hau amaitu zenean berriz ere ETBra bueltatu nintzen. El Mundoko lana eta ETBkoaren artean erabaki behar izan nuen. Nik uste dut ETBkoa hautatzearen arrazoia egunkari batetako zuzendaritzak suposatzen duen lan handia dela. Goizeko bederatzietan hasi eta gaueko hamabiak edo ordu batak arte izaten nintzen lanean, gainera bi urte horietan ezin izan nuen antzezlanik idatzi.

Berton: Erreza da kazetari izatea Euskal-Herrian?

Nik uste dut galdera hau bi modutara ulertu daitekeela: erreza lana lortzeko mekanismo gisa eta ia erreza den kazetaritza lana garatzea.

Lehendabizikoaren inguruan uste dut ez dela batere erreza zeren solbentzia ekonomiko majua duten oso lanpostu gutxi sortzen dira eta zentzu horretan kazetari bezala gero eta zailagoa dela lan egitea iruditzen zait.

Bigarren formulazioaren inguruan momentu honetan kazetaritza lana garatzea zaila dela deritzot. Hedabideen artean egoera oso politizatua dago; batzuk besteen kontra. Modu honetan lan egiten duzun hedabidean ez dakit fidelitate osoa eskatzen dizuten argi-

taldariaren interes eta printzipioeikiko baina bai konpromiso mota bat. Beraz, zentzu honetan zaila da zure lana era independente eta interesgarri batez burutzea, ez bada zuk pertsona bezala duzun ideologia bera duen komunikabide batean egiten duzula lan. Dena den, nik hori parentesi artean jarriko nuke. Hau da, zu Athleticzalea bazara eta talde honetako aldizkari batetarako egiten baduzu lan, oso gustura arituko zara beharrean baina seguraski zailtasunak izango dituzu taldeko akatsak ikusterako orduan eta hori informazio desegoki baten bidea izan daiteke.

Berton: Leku ona da Euskal Herria kazetari izateko?

Nahiz eta arriskuak egon informatiboki interesgarria dela uste dut. Euskal Herriak une oso gogorak bizi ditu; hala ere, bizitzea eta haren berri ematea merezi duen prozesuan murgilduta gaudela uste dut.

Berton: ETBn albistegiak egitetik gai sozialagoen trataera duten programak egitera igaro zinen. Zein izan zen aldaketa horren arrazoia?

Lan egiten duzun hedabidearen jabe ez bazara, ez zara zu izango ezer erabakiko duena, beraz ez nuen nik erabaki aldaketa hau. Hala ere, nahiz eta nik erabaki ez, oso gustura nago duela bost urtetatik egiten dudun programan. Forum du izena eta gai sozial eta kulturalekin zerikusia duen jendea elkarriketatzen dut. Beraz, nik aukeratu ez nuela kontutan hartuz oso pozik nago bertan lan egiten.

Oso interesgarria dela iruditzen zait, zeren garrantzitsua dela uste dut euskal gizartearen gertatzen dena ezagutzea. Gainera orain asko kostako litzaide albistegietako erritmo gogorrera bueltatzea. Oso estresantea da horietan lan egitea eta modu zehatz eta borobil batez adieraziz, bat bateko kazetaritza gazteontzat dela uste dut; gainera praktikan hala da.

Berton: ETB funtzio batekin sortu zen. Uste al duzu egun hori kontutan hartuz egiten duela lan?

Kontu oso konplexua da. ETB telebista publikoa da, beraz, egitate horretatik abiatuz ETBren lege fundatzailean zehaztutako helburuak bete behar ditu. Ez naiz zehatz mehatz hauetaz gogoratzen baina gutxi gora behera hauek lirake: demokrazia defendatzea, herri honetako hizkuntza eta kulturaren garapena bermatu eta defendatzea, eta orokorrean euskal herritarrentzat ona dena bultzatzea. Honela izan beharko luke teoriarik ETBk baina praktikan, eta ez dut ezagutzen hau gertatzen ez zaion telebista publikorik, gobernuan dagoen alderdiaren menpe dagoen telebista da. Gobernua eta honen inguruarri mesede egingo dioten edukia jorrazteko joera du. Azken finean hauek dira ETBko zuzendaritza aukeratzen dutenak.

Berton: Eta horrek ba al du kon-

ponbiderik?

Egia esan ez dakit. Badira urte batzuk honen inguruan artikulua bat idatzi nuela gazteleraz eta honela zioen titulua: "El despolitizador que despolitice buen despolitizador será". Konponbidea egotekotan ETBko Administrazio Kontseiluan dagoela uste dut. Kontseilu hau hamabost pertonek osatzen dute gutxi gora behera eta hauek hauteskundearen emaitzekiko baliokideak dira. Hau da, hauteskundeetako alderdien emaitzen arabera osatzen da kontseilua, egitura politikoa batzuk besteek baino ordezkari handiago izango dute beraz. Dena den, orain sindikatuek izendaturiko bi edo hiru lagun ere badirela uste dut. Esan bezala horrela antolatzen da ETBko Administrazio Kontseilua, baina nire iritziz ordezkari zabalago bat egon beharko luke bertan. Esaterako etxeko langileen ordezkariaren bat, Euskaltzaindikoa, unibertsitatekoa, kontsumitzaileena,...

Berton: Nabari dute ETBko langileek aldaketarik une politiko desberdinen arabera?

Zentzu horretan ETBn aldaketa gutxi egon ahal izan dira, zeren sortu zenetik beti egon da Eusko Jaurjaritzako Kultura Sailak gidaturik eta hemen egitea beti izan da EAJ-k.

Berton: Bai, baina EAJ aldakor samar ibili da azken urteotan, ez?

Bueno bai eta hori nabaritu izan da beti. Denboraldi batzuetan albistegiek joera nabarmendu bat zuten eta beste garai batzuetan aldiz, zeharo desberdina. Eztabaida programetan esaterako, garai batean ez zen HBren parte hartzea onartzen. Ajuria Eneako ituren garaia zen eta horrek HB baztertua gomendatzen zuen. Horrelakoak telebista publikoetan sarri gertatzen dira. Eskuak lotuak dituzula mugitzen zara askotan. Debate bat prestatzerako orduan ez duzu antolatzen gai horren inguruan interesgarriak iruditzen zaizkizun pertsonekin, baizik eta hauteskundeetan alderdiek izandako emaitzen arabera. Hau da, guztira zapzi eztabaida egongo badira alderdi irabazleak lautan parte hartuko du, ondorengoak hirutan,...

Nire iritziz, ordea, edozein bitarteko informatibok gizartearen gertatzen dena modu inpartzial eta duinean komunikatzeko beharra du. Ondoren bere iritzia eman dezake baina beti ere informazioa irizitik bereiztuz eta gizartearen iritzi desberdinak daudela aditzea eman.

Berton: Ba al du eraginik kazetariaren ibilbide profesionalak komunikatzen ari den albistearen sinesgarritasunean?


Guztiok dugu ideiarik bat entzun, irakurri edo ikusten dugunaren inguruan eta askotan pentsatzen dugu, beno hau sinestuko dut kazetari honek esaten duelako edo honek esaten duenaren kontrako pentsatuko dut zeren ez naiz berataz fio. Lehen esan bezala hedabide guztiak daude ideologia desberdinekin lerroturik eta nik uste dut honek sinesgarritasun gutxi ematen digula kazetarioi. Jendeak uste du ordaintzen digun hedabidearen lengoia darabilgula.

Berton: Zein aholku emango zenioke kazetari ikasle bati?

Alde batetik esango nioke gizartearen gertatzen dena ezagutzea eta horren berri ematea izugarri polita dela alde profesional eta pertsonaletik begiratuta. Bestetik, lan hau gustuko dutenei ez etsitzea esango nieke. Saiatzea, borrokatzea. Azken finean konstantea denak lanpostua lortu ohi du, zailtasun urte batzuk igaro ondoren noski. Kazetari gisa ez zara aberastuko baina bizitza honetan gustuko duzuna egin behar duzu, berdin dio pezeta bat gehiago ala gutxiago izatea.

Berton: Zein da zure harremana euskararekin?

ETBn egiten dut lan, beraz, mundu euskaldun batean bizi naiz baina ez dakit euskaraz. Aitzaki bezala esan dezaket euskarak





nagusi harrapatu ninduela. Aitzakia dela diot zeren badakit egin dudana baino gehiago egin neza-keela.

Berton: ETBn lan egin eta beraz mundu euskaldun batean bizi zarela diozu. Zelan ikusten duzu bada euskal hedabideen oraina eta geroa?

Denboran atzera begiratzuz gero azken urteotan euskal hedabideen presentzia eta indarra handitu egin dela esango nuke. Gainera nik uste dut suspertzeko joera honek aurrera egingo duela zeren gizarte heldua geroz eta euskaldunagoa da eta zentzu horretan euskal komunikabideek etorkizuna dutela iruditzen zait.

Berton: Zein da zure harremana Santutxurekin?

Santutxun bizi naiz aspaldi eta aberastasun urbanistikorik ez duen arren, parkeak, eraikin interesgarriak,...auzo atsegina dela uste dut. Gainera inizatiba anitz duen auzoa dela iruditzen zait; inauteri propioak, Olentzaro propioa, jaiak,...

Bizitza propioa duen eta engantzatzen duen auzoa da.

«DON DIEGO LÓPEZ DE HAROREN GAINEKO ANTZEZLAN BAT PRESTATZEN ARI NAIZ»

Zertan dabil orain David Barbero antzezlan idazlea?

Egia esan antzerki egile gisa pikatua nago. Ordu asko eman ditut, lan handia egin dit eta epaimahaiko kide gehiago "engainatu" ditut produktoreak baino. Hau da, sari gehiago lortu ditut obra antzeztuak baino. Hala eta guztiz ere, une honetan zenbait proiektu ditut esku artean. Garrantzitsuenak Diego Lopez de Haro jaunari buruz egiten ari naizen obra da. Hau urte honen amaieran, Bilboko 700 urteurrena dela eta, antzezteko aukera dago eta momentu honetan beraz, honetan nago murgilduta.

Antzerki lan hau 1300eko ekainaren 15eko gauaren berregintza historikoa da, eta azkenengo bi urteetan Basauriko Antzerki Eskolatik ateratako ikasleek antzeztuko dute. Berregintza historiko bat dela esan dut baina dokumenturik aurkitu ez dudanez asmatu dut. Ja, ja, ja...

Bitartean beste lan batean nabil ere. Zati asko eta desberdinak dituen antzerki lana da. Zatiak abesti subertsiboak eta jota pornografikoak dira besteak beste eta horretaz gain hirugarren proiektu bat ere badut. Uda honetan Santiagoko bidea egin nuen oinez eta bertan, erromesen artean sortzen den giroarekin liluraturik honen inguruko zerbait idaztea pentsatu nuen. Kurioso da, inork ez zuen nirekin etorri nahi bidaia egitera eta azkenean herrena den lagun batekin egin nuen. Ja, ja, ja...


Zelan ikusten duzu egungo euskal antzerkia?

Momentu onean dagoela uste dut. Duela hiru edo lau urte Euskal Herrian egiten ziren obrak arrakasta handia eduki zuten, ez soilik hemen baizik eta estatu osoan eta geroztik euskal antzerkia oso maila altuan dagoela uste dut. Honen adierazle Florida Pensil da.

Hala ere, euskal antzerkigintzaren une on honek buztinezko oinak dituela iruditzen zait. Hau da, ez dago azpiegitura edo konpainia sendorik, beraz, gauzak ondo doazen bitartean ez dago kezkatzerik, baina urteren batean gauzak okertu eta antzerki lanen batek porrot eginez gero dena pikutara doa.

Durangoko Liburu eta Diska Azokara joateko asmoa duzu?


ESTHER (SANTUTXU)
Ez dakit. Lehengo urteetan egonda nago. Urte gehienetan joan naiz.




IGOR (SANTUTXU)
Ez naiz joaten eta ez dut uste aurten joango naizenik. Ez zait interesatzen.




JOEL (SANTUTXU).
Ez. Ez du interesik niretzat.




IÑAKI (TXURDINAGA)
Ez. Ez naiz inoiz egon.




NEREA (SANTUTXU)
Ez dakit. Egia esan, ez naiz sekulan egon.



NAIARA (SANTUTXU)
Oraindik ez dakit. Aurreko urteetan ez naiz joan.



ANGERIÑE (SANTUTXU)
Bai. Urtero joaten naiz liburuak erosten.



MAIDER (SANTUTXU)
Bai. Aurreko urteetan egonda nago. Komikiak eta interesatzen zaizkit.

A
K
A
R
K
A

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Otxarkoagako dendarien batasunaren bila

Ehunen bat merkatarik osatzen dute auzo honetako dendari elkarteak



Testoa: Unai CUEVAS
Argazkia: Xabi HERRERA

Orain dela urte bete sortu zen Otxarkoagako dendarien elkarteak ehunen bat komertzioz osaturik dago. Orotara, Otxarkoagan 240 denda direla jakinda %40a inguru besterik ez du biltzen. Dena den, elkarte honetako presidentea den Francisco Ramirezek aitortzen duen moduan "etorkizunari iaz baino baikortasun gehiagorekin aurre egitera goaz".

Lan egiteko gogo gehiagorekin ageri dira eta denborarekin konponbideak bilatzen ari direla aipatzen du Francisco Ramirezek aburuz, "auzoko dendari guztiak elkartearen barne egon beharko lirateke, proiektu asko daudelako egiteke eta gero eta gehiagoren artean burututa askoz hobe".

Bestalde, ez du normaltzat ikusten "batzuk lan egitea eta beste batzuk horretaz etekina ateratzea", eta honen ildotik denon arteko batasunaren aldeko apustua egiten du.

"BILBAO DENDAK"

Bestetik, aipatu beharra dago Otxarkoagako dendarien elkarte hau pasa den urrian Bilbao dendak izeneko proiektuan barneratu zela. Honek, Bilboko dendarien elkarteak

biltzen ditu eta etorkizunean ekintza bateratuak burutzerazuzendua dago. Nahiz eta oraindik arlo honetan inolako eskarmenturik ez izan Francisco Ramirezek ekimenaren alde azaltzen da, "oso positiboa izango dela uste dut bai guretzat baita beste elkarteentzat ere, asko lagunduko digu eta oso ondo funtzionatuko duelakoan nago".

Elkarte honetatik auzokideei auzoan konfiantzazko dendak dituztela eta ahalik eta auzokideentzako zerbitzu egokiena luzatzeko prest daudela esanez mezua zabaldu nahi dute. Honela, orain arte ekintza ezberdinak antolatu dituzte; lehen urteurrena dela eta prestatutako festan auzoko komertzioetan gastatzeko 100.000 pezetako bonoa zozketatzeaz gain Mallorcarako bidai bat banatu zuten ere. Hau guztia ondo egokitutako lunch baten ondoren.

GABON ZOZKETA

Eta gabonak gertu ditugunez, beste festa bat prestatzekotan daude, bertan otzara bereziak zozketatuko dituztelarik. Honetaz gain, ere Otxarkoagako beste elkarteekin batera Olentzeron eta Erregeen kabalगतan parte hartuko dute ere.

IGESI JOIAN AUTO BATEK ISTRIPU LARRIA ERAGIN ZUEN TXURDINAGAN

Emakume bat hil eta beste lau lagun zaurituta ateratu zire

Ertzaintzarengandik igesi joian auto batek istripu larria eragin zuen azaroaren 22an Txurdinaga eta Santutxu auzoak lotzen dituen Doctor Hornilla kalean. Ondorioz 36 urteko andrazko bat hilda suertatu zen eta beste lau lagun, bere alaba bi tartean, zaurituta. Ezbeharrak eragin zuen autoaren igesaldia Santutxuko kale batean hasi zen eguerdiko ordubatak aldera. Taxi baten kontra tupust egin eta gero L.M.J.A. gazteak Ertzaintza zetorrela ikusi eta arrapaladan abiatu zen handik Opel Omega baten bolanteari eutsita. Santutxuko kaleetan barrena atzetik segika zetorkion polizi autonomikoa despistatu nahiean autoarekin abiada bizian ibili zen. Orpoz orpo zetorren Ertzaintzako patrullari jaramon egin barik gaztea Doctor Hornilla kalean sartu zen eta bolante kolpe baten bitartez Zumalakarregi autobiderra aldatu nahi izan zuen. Maniobra botitz honen ondorioz autoaren kontrola galdu eta, ondorioz, ibilgailua espaloian zeuden lagunengainera abaildu zen.

ONDORIOAK
Istripuaren eraginez 36 urteko Agurtzane U.A. hil zen eta hiru urteko bere alabatxoa zaurituta gertatu zen. Umetxoa bere aulkian lotuta eroan ez izanak bizia salbatu zion. Hildakoaren beste alaba bat eta 64 urteko gizonezko bat ere zaurituta ateratu ziren. Agurtzane U.A. aulestiarra zen eta Txurdinagan bizi zen. Oinezkoak zapaldu eta gero kotxeak farola baten kontra jo zuen. Autoaren barruan gidariarekin batera joiazan emakume bi Gurutzetako ospitalera eramanez zituzten euren zauriak sendatzeko. Gidaria atxilotuta eramanez Ertzaintzak. Ezagutzera emanda-



ko datuen arabera, hogeita bost urteko gazte honek ez zeukan ez gidatzeko karnetik ezta auto asegururik ere. Istripuko lekuko batzuek polizia autonomikoen jarrera salatu zuten jendez betetako kaleetan barrena abiadura handiko pertsekuzioa egin izanagatik.



ASAPALA
KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarteak egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K

SAGARMINAGAKO AUZOKIDEEN KEXAK

Sagarminaga etxe multzoko auzokideak udalarekin tirabiretan dabilta aspalditik. Arazo guztien iturri etxe multzo honen barne dauden patioak dira. Bertan bizi direnek patio hauetako berrikuntzak udalak ordaintzearen trukez beren jabetza udal administrazioarena izatera pasa daiten eskatzen dute. Honetaz gain, udalak orube hauen narriapena ekidin asmoz 1998an barrutiko kontseiluaren bitartez hitzartutako 90 milioiak inbertitu behariko lituzkeela uste dute ere. Udalak, bere aldetik, kalte-tuen aldarrikapenak ez dituela ahaztu baina Bilbok burutu behar diren obra guztiak aurrera eramateko nahi haina baliabide ez dituela argudiatzen du. Aipatu, aurretik Sagarminako auzokideen eta udalaren artean hainbat eztabaida egon direla apurtutako hodiak direla eta.



Argazkia: Xabi Herrera

GERNIKA MAHATSERRIRA

Ez zuen luze iraun baina ordu batzuez gure kale bateko hormak Picassoren "Gernika" margoaren erreprodukzioa luzitu zuten. Gazte koadrila batek munduan zehar euskaldunen hiri santuaren izena zabaldu duen irudia erabili zuten. "Gernika" berri hau Udalaren garbiketa brigadaren biktima izan zen.

URIBARRIKO HERRIKO TABERNA BERRIRO ZABALIK

Iragan urriko 8an, igandea gabaz eta inor ez zebilen orduetan, ezezagun batzuk Euskal Herriko zaharrena den herriko tabernari su eman zioten. Uribarriko auzokideren batek kea ikusi edo, eta ohartarazi zituen udaltzainak sua amatatzeko. Kalteak ez ziren handiegia, baina kalte azken finean. Erasoaren errudunen izen-abizenak jakin ez bazekizkiten arren, susmo argi bat bazeukaten nor izan zitekeen egilea, hau da, erreketari keaz gain kutsu politikoa ere bazeriola. Honela, erasoaren hurrengo egunetan zenbait mobilizazio ea bilkra burutu ziren, bai auzoan baita La

Salveko guardia zibilaren kuartelaren aurrean ere, eraso salatuz. Berrikuntzak lan handia ekarri duen arren, hilabete pasata berriro zabaldu ditu atea itxura apur bat ezberdinarekin, baina betiko giroari eutsiz. Azaroaren 11an, larunbata, berrikuntza zela medio, eguerdian burutu zen ekitaldi xume batean Herri Batasuneko mahaikidea den Ibon Arbuluk hitz batzuk esan zituen han bildutako auzokideei eta lagunei, eta iluntzean 30 bat pertsonak parte hartu zuten egin zen ospakizun-afarian.

GAZTE EGUNA SANTUTXUN

Azken hileotan poliziak atxilotu eta Espainiako epai-leek kartzelara bialdutako zenbait gazteren aldeko ekitaldia egin zen Santutxun azaroaren 18an. Dirua bil-tzeko asmoz Gazte Eguna ospatu zen. Sorgintxulon egin-dako herri bazkaria ehundik gora lagun batu zen eta arratsaldean zehar hainbat jokoez ongi pasatu zuten gazteek. Azkenean hirurogeigarren hamarkadako estiloaz jaia egin zuten.



Argazkia: Xabi Herrera

ZINEMA EUSKARAZ ASTERO SORGINTXULON

Santutxuko etxe okupatuan, Sorgintxulon, astero astero zinema euskaraz proiektatzen hasiak dira. Pelikulak Karmelo plazako lokalean ematen dituzte asteazkenero goizeko eta iluntzeko saioetan. Goizekoa hamarretan hasten da eta arratsaldekoa zortzietan.

Azaroaren 24an Petti "euskal yarragh" egon zen kantari Mahatserrian Kultur Errotaren programazioaren eskutik. Asapala euskara elkarteak antolatutako kontzertua arrakastatsu suertatu zen artistaren jardunari zein publikoaren erantzunari erreparatuta. Bere kitarraren laguntza hutsaz Pettik entzuleak patrikeran sartu zituen saio bikain bati esker. Kontzertua Sorgintxuloko lokaletan egin zen eta aurtengo Kultur Errotaren azken emanaldia izango da. Datorren urtean segida eukiko du Euskararen elkarte eta aldizkariaren Topaguneak bultzatutako formato txikiko kultur ekitaldi sorta honek.

ATLETISMO TALDE INDARTSUA

Ortuellako Atletismo Klubak apostu garrantzitsua egin du Euskal Herriko sei atletarik onenatarikoen fitxaketa aditzera eman eta gero. Honela, talde eraberritu honen bizkar hezurra orain arte talde kanpotarretan aritu izan diren Amaia Piedra, Cristina Petite, Estibaliz Urrutia, Iratxe Aranburu, Nieves Zarza eta Virginia Berasategik osatzen dute. Iratxe Aranbururen salbuespenaz aparte, beste guztiak internazionalak izan dira behin baino gehiagotan. Aipatu beharra dago Ortuellako taldeak izango duen aurrekontua 6,5 milioikoa izango dela, horietatik hiru Bizkaialde Fundaziotik jasotakoak izanik. Beraz, orain euren lehenengoko helburua Euskadiko txapelketa eskuratzea izango da eta ondoren Espainiakoan podiora iristea saiaktuko dira. Honetarako korrikalari maha-tseritarren (Amaia Piedra eta Estibaliz Urrutia) esfortzua ezinbestekoa izango da.

HERRIRA PLATAFORMAREN MANIFESTAZIOAK HILEKO AZKEN BARIKUETAN

Hilero hilero azken barikuan Euskal presoak Euskal Herrira ohia egi bihurtzeko manifestazioak egin izaten dira Santutxun. Herrira plataformaren deialdiari erantzunez ehundaka lagun kalera ateratzen da auzoan barrena preso-en aldeko mezua aldarrikatzeko asmoz. Xabi Herrera-ren argazkian, urriaren 27an eginiko mobilizazioa.



Argazkia: Xabi Herrera

PETTI ABESLARIAREN ARRAKASTA KULTUR ERROTAN

HERRI KROSA: SANTUTXUAR BAT BERRIRO ERE GAILURREAN

Herri Krosaren hamairugarren edizioan berriro ere mahatserritarrak albiste izan ditugu. Honako honetan Estibaliz Urrutia santutxuerra lehenengo helmugaratu zen emakumeen mailan hamar kilometroak 36 minutu eta segundu baten betez. Bere atzetik, lau minutura gutxi gorabehera, Gentzane Beitia eta Silvia Vega sailkatu ziren. Aipatu beharra dago probaren errekorra korrikalari honen eskuetan dagoela eta honetaz gain aurreko beste edizio batzutan ere garaile atera dela. Oraingo honetan, aldiz, talde berriaren kamiseta era paregabez estreinatu zuten Urrutiak. Mutilen mailan, berriz, Domingo Lugo kanariarra izan zen garailea 32 minutu eta 25 segundutako denborarekin. Atzetik, Antonio Gomez (32,28) eta Javier Castro (32,56) sailkatu ziren. Aurtengo edizioak, nahiz eta euria lagun izan, partehartzaileen errekorra hautsi zuten. Orotara, 7614 (iaz baino 100 gehiago) partehartzaile aritu ziren korrika euripean, probaren zentzu herrikoiak inoiz baino garrantzi handiagoa lor zezan lagunduz.

E R R I K A R I A K


E R R I K A R I A K

DBHko erreforma, PPreun uniformizazio gogoa

Bigarren Hezkuntza aldatzeko proiektuak Espainiako barne sendotasuna irmotu nahi du

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) eta Batxilergoko erreforma proiektua plazaratu du azaroan Espainiako Gobernuak. Pilar del Castillo ministroak gaztelania eta matematika jakintzagaiak indartzeko gogoz egin izana nabarmendu du baina Euskal Herritik bestela ikusi da bere asmoa: PPreun uniformizazio gogoa gailendu dela pentsatzen dute askok eta askok euskal irakaskuntza munduan.

Udako sargoria Espainiako Historiaren erret akademiaren txostenarekin eta San Millán de la Cogollako agiriarekin areagotu eta gero, PPK udagoieneko hotza Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako prestatu errefor-maz epeldu du. Pilar del Castillo ministroak gaztelania eta matematika jakintzagaiak bultzatu nahi dituela esan zuen aurkezpen ekitaldian. DBHko lehenengo mailan bi ikasgaion ordutegia luzatuko dela nabarmendu zuen, Plastika eta Musikaren kaltetan. Gainera, grekoa, filosofia eta teknologia gisako jakintzagaiak ere indartuta aterako ei dira PPK sustatu nahi duen erreforma honen ondorioz. Aldaketa



guztiak indarrean jartzeko lau urteko epea ezarri dio Gobernu espainolak bere buruari. Hala ere, ez dira hauek eztabaida gehien eragin duten arrazoiak, musika irakasleen haserrea begi bistakoa izanda ere. Polemikak aurretik zetorren sokari heldu dio. Ministroak berak aitortu zuenez, Batxilergoko bigarren mailako Historia ikasgaia, Historia de España bihurtuko dute. «Espainiako Historian sakondu beharko du, Prehistoriatik hasita gaur egungo demokrazia arte», adierazi zuen. El País egunkari espainolak esan zuenez, Espainiako Historia 70. hamarkadan irakasten zen legetxe jarri nahi ei du erreformak. Hortaz gain, Del Castillok esan bezala erreformaren

helburuetako bat «ikasleak Espainian barrena bizilekuz aldatuz gero arazorik ez eukitzea da. Horretarako ikasturtez ikasturte toki guztietan jakintzagai berberak eskaintzea komenigarriena da».

OLIVERIREN KRITIKAK

Inaxio Oliveri EAeko Hezkuntza kontseilariak PPreun erreforma zorrotz kritikatu zuen, batez be Gobernu espainolak kurrikulumak «ia itxita lagatzen dituela. Ondorioz, gure eskubidea den materiaren %45 hori zehaztuko dugu hemendik aurrera eta gainerakoa (%55) Madriliko Gobernuaren edukietatik kabituko dena sartuko da». Orain arte sarritan jaso ditu kritikak Oliveriren sailak bere esku zegoen ikasgaien %45 hori ezartzeko aukera erabiltzen ez zuelako. Oliveriren iritziz, Del Castilloren erreformak ez du oinarri pedagogikorik. «Helburu partidistak besterik ez ditu proiektu horrek», ziurtatu zuen. Oliveriren kritiken beste ardatz bat izan zen, PPreun neurri sorta ez dela eraginkorra izango. Ikasleen porrota konpontzeko borondaterik ez zuen ikusi, «ordu nahiz ikasgai igoera hutsak ez baitu zertan konpondu arazo askoren iturria».

Oliverik plan berriari gaur egun gaudituta dagoen «filosofia atzerakoia» dariola uste du, duela 30 urte indarrean zegoena, hain zuzen. Horrela, hamalau urtetik gorako ikasleentzat, garai batean bezala, hiru bideko eskema proposatu omen zaie: ikasle txarrak lanera edo langabeziara; arazoak ematen dituztenak, Lanbide Heziketara; eta, azkenik, onak, Batxilergoa egitera. Euskal Herritarroek be bere kritikak azaldu zituen. Batetik, ez zion PPri Euskal Herriko hezkuntzako temarioak ezartzeko zilegitasunik aitortu. Joseba Permach bozeramaleak gogoratu zuenez, Nafarroan, EAEn legez, ikasgaien %45 hautatzeko eskubidea dago baina %0 aukeratzen da UPN eta PSNk hala erabakita. «Debatea ezin da izan portzentaien ingurukoa, geure hezkuntza sistemako kurrikulumak osatzeko eskubiderik ba ote daukagun baizik», argitu zuen. EHkoen iritziz, azken aldian euskarazko irakaskuntzaren aurka zuzendutako eraso etengabeen atzetik sistema hori kolokan jartzeko borondatea dago. «Badakite euskal gizarteak euskarazko irakaskuntzaren aldeko apustua egin duela eta, horregaitik, bataila hori aspaldian galdu zutela», gaineratu zuten.

EUSKARA ETA EUSKAL IRAKASKUNTZAREN GAINEKO INFORMAZIOAK AZKEN HILABETEAN

Urriko hondarretako eta azaroko prentsa arakatu ostean honelako albisteak topatu ditugu handik eta hemendik. Euskararen eta euskal irakaskuntzaren gaineko "informazio" uriolan itota gaudela dirudi. Hona hemen notizion titularrak edo maminak:

- *Hamar ikastoletatik zortzik ez du erlijioa ikasgaia eskaintzen, derrigorrezkoa bada ere. (El País)
- *Gasteizko Parlamentuak irakasleak euskalduntzeko azterketaren balioa murriztea eskatu du.
- *PPK D eredu ikastetxe askotan gaztelaniaren eskola orduak kendu dituztela dio.
- *Euskararen dirua urritu nahi du Nafarroako Gobernuak, 1995etik lehen aldiz.
- *Gasteizko Parlamentuak hezkuntza ereduaren emaitzen gaineko txostena agindu du, D ereduarenak kaxkarragoak direlakoan. PP: "Laster periodikoetako lan eskaintzetan honako oharra agertuko da: «Abstenerse modelo D»".
- *PSEK EAeko Euskararen Aholku Kontseilua errotik aldatzea nahi du «erdaldunen eskubideak kaltetu nahi dituelako».

- *UAK AEKren kontra jo du. Eusko Jaurlaritzari laguntzak bertan behera uzteko eta auditoriak plazaratzeko eskatu dio. AEK ETAREN beso politikoa dela eta bere jarduna kriminala dela gaineratu dute UAKo buruek.
- *"ETBko euskarazko magazine ikusienak "putre" deitu dio Felipe printzeari". (El Mundo).
- *Mayor Oreja Barne ministro espainolak eta Juan Cotino Polizia espainolaren buru nagusiak Euskal Herrian borroka harmatua existitzearen hazia euskarazko irakaskuntzan eta gazteen etxeetan bertan dagoela esan dute.
- *PPK «Aizu!» euskarazko aldizkariaren komiki bat Parlamentuaren aurrean salatu du, haren edukinaren erdarako itzulpen erratua egin eta gero.
- *Garzónék AEKren ondasunak bahitu, administratzaile judiziala izendatu eta hamazortzi lagun ETAKo kide edota laguntzaile izateaz salatu ditu.
- *Espainiako Auzitegi Gorenak Udal Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) ilegala dela dioen sententzia kalderatu du. Udalak ezin dira euskara sustatzeko elkartu.
- *DBHko erreformak Espainiako Historia 70. hamarkadan irakasten zen eredura itzuli nahi du. (El País).

Bazkide txartela

Izen deiturak:	ENA zenbakia:
Helbidea:	Herria: Posta kodea:
Telefonoa:	Lanbidea: Jaioteguna:



Partehartze mota:	Ordainketa:	Kuota korrante bidez
<input type="checkbox"/> Bazkide soila <input type="checkbox"/> Ekintza jakinetan laguntzaile <input type="checkbox"/> Lantaldeko partaide	<input type="checkbox"/> Kontu korrante bidez <input type="checkbox"/> Asapalaren kontuan 3035 0071 6 071 105864. 2	<input type="checkbox"/> 500 pta <input type="checkbox"/> 1000 pta <input type="checkbox"/> 2000 pta <input type="checkbox"/> pta

DAYTON
Reagge-festa
taberna
Santutxuko poteo gunean

ekilore
Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU
TABERNA
Ricardo Bastida plaza

A R A G O R A T I K A E H E T I K A

E H E T I K A G O R A

berton



hartu bertone etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:

Abizenak:

Kalea: Zenbakia: Solairua:

Herria: Herrialdea: Posta Kodea:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura

ZAMAIA EDO CONGUEDA (682 metro)

ALONSOTEGITIK

Balmasedarako bidean Alonsotegiko eleiza igaro eta seiehun metro aurrerago, bide arteza amaitzerakoan, ezkeralderantz ateratzen den El Somo auzorako errepidea hartuko dugu. Laster Aldanondo baserritik pasatuaz Aldana eta San Martin (El Somo) auzoetara helduko gara. San Martin ermitaren ondoan utzi genuen autoa. (A).

Pixka bat aurrerago etxe bat aurkituko dugu eskumaldean eta zertxobait aurrerago asfaltaturiko pista amaitzen zaigu beste etxe baten parean. Ezkeralderantz doan pistari jaramonik egin barik eskumalderantz jotzen du gure bideak. Berehala bidegurutze batean egongo gara. Erdikoa eta eskumaldekoa utzita ezkeralderantz doana hartuko dugu. Oso denbora gutxian amerikar haritzez osaturiko baso bat agertuko zaigu ezkerrean, beste aldean pinuek segitzen duten bitartean.


Aipatutako hariztia amaitzen den tokian bertan eskumaldera joko dugu pinudi baten zehar eta aldapan gora. Gure bideak laster bihurgune itxia egingo du ezkerretara. Eskumalderantz doazen pistak ikutu barik laster helduko gara lepora. (B)

Behin honaino helduta ezkeralderantz ekingo diogu bidari alertzeak eta, apur bat aurrerago, pinuak begien aurrean agertuko zaizkigun artean. Ondoren belardi batera iritsiko gara eta berehala izugarritzko ebakidura agertuko zaigu ezkeralderantz. Laster daramagun pista goiko aldera abiatuko da baina guk belardia zeharkatzen duen bidexkatik segituko dugu. Aldapatxo bat gaindituta txartel

kutxa aurkituko dugu (Zamaia, 682 metro)

Guztira ordubete eta bost minutu.

Ikusi ditugun zuhaitz motak:
200-300 metro: Arkazia, eukaliptua, haritza, pinua, nekosta.
500 metro: Alertzea, haritz amerikarra.



GABRIEL ARESTI ATZERA BE GEURE ARTEAN

ANGEL ZELAIETA MAHATSORRIAK

IDAZLE BILBOTARRAREN BIZIA ETA LANA BILDU DU

Angel Zelaieta idazle eta ikerlari mahatsorriak Gabriel Arestiren biografia plazaratu berri du. Egile bilbotarraren bizia eta lan gehienak -olerki, antzerki, ipuin, eleberri eta abar- batu ditu haren irudi ahalik eta osatuena eskaini gurean. Zelaietaren iritzi, pertsonalki ezagutu zuen gizon hark ez du jaso merezi zuen arreta.

J. Larrazabal

Zenbaki borobilen urtean etorri zaigu Gabriel Arestiren biografia berri hau. Izan ere, bi milagarranean, Bilbok zazpi mende bete duen honetanxe, bere euskal idazlerik nabarmenenaren heriotzaren hogeita bosgarren urtean gaude. Biografiaren egilea, ostera, ez dator kopuru zehatzen aitakia-maitzakian. Angel Zelaietaren ustetan, Aresti zen idazle garrantzitsuak ez du orain artean behar bezalako arretarik bereganatu.


Egoera hori aldarazten hasteko grinaz Zelaietak "Gabriel Aresti (biografia)" liburua plazaratu du azaroan. Susa argitaletxearen eskutik buruz buru tratatu zuen gizonaren berri ematen du ahalik eta ikuspegi osatuena eskaintzeko asmoz. Horretarako, Gabriel Aresti poeta ez ezik, antzerkigilea, artikulugile eta polemista, euskara batuaren sustatzailea eta euskal kanta ezagunen egilea bildu du bere liburuaren orrietan zehar.

Liburuan biografia eta bere lanetaz gain familiaren artxibotik ateratako argazkiek ere badute tokirik. Ez dagoz bere idazlan guztiak, Zelaietak berak prentsaren aurrean eginiko aurkezpenean agertu zuen legez, «galdurik dauden lan batzuk eta aldiz-

karietako artikulua ez baitira liburuan jaso».

POETA ETA BILBOTARRA

Gabriel Aresti 1933an jaio zen Bilbon eta bertan hil zen 1975an. Euskal poesiaren berriztatzailea, "Harri eta herri" eta "Maldan behera" bezalako olerki liburuak plazaratu zituen, poesia sozialaren esparruan. Antzezlanak ere ugari idatzi zituen, nahiz eta gehienak taularatzeko moduan ez sortu. Artikuluak, nobelak eta kanta -Oskorri, Mikel Laboa eta Xabier Lete, besteak beste, berarekin batera jardun ziren- ezin falta bere lanetan. Angel Zelaietak idatzitakoak aurretik idatzitako lanak hartu ditu kontuan, batez be 1985ean Karmelo Landak egindakoa. Susa argitaletxeak, bere aldetik, aspalditik dauka Arestirekiko lotura. Izan ere, haren eskutik etorri zen, orain urte batzuk direla, idazle bilbotarraren lan guztiak biltzen zituen liburuki andana.



"Gabriel Aresti (biografia)"
Angel Zelaieta
2000, biografia

ARESTI EZAGUTU

Eibar honetan, Juan San Martinen etxean hain zuzen ere, ezagutu nuen lehen aldiz Gabriel Aresti, pertsonalki. Hirurok batera afaldu genuen San Martinen etxean. Niretzat biak ziren maisu jarraigarriak eta biak lehenengoz ezagutu nituen. Benerazioz eta gizon inportanteen artean nengoela-eta begiraten nien. Estrainiatu egiten zitzaidan, horregatik, nola diskutitzen zuten, «koño!», «joder!», vel similia botaz, edozein tabernatan edozein gizonnek legez. Gabriel Arestik SESBen alde egiten zuen eta Juan San Martinek, ostera, Suitzaren organizazio politikoa kontra jartzen zion.

dudan paketerik beldurgarriena-. Agurra egiterakoan, esan zidan: «Behin edo behin nitaz gogoratzen bazara, asko sufritzen duen gizon errukarri bat ezagutu duzula oroi zaitez». Gizon arraro baina ikaragarrian deigarriaren zirrararen egin zidan eta ezin nuen ulertu nik periodiko eta liburuetan ezagutu nuen gizon hura hain urduria eta seguritate bigunekoa izatea. Aurrerantzean lagun izan ginen, harik eta heriotzak banandu gintuen arte.

Anjel Zelaieta
"Gabriel Aresti (biografia)" liburua.
Susa argitaletxea. 2000. urtea.

ZURE PUBLIZITATEA HEMEN
94 473 54 48



Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 94 473 10 65

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA

Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Biktimenganako Laguntza Zerbitzua
Servicio de Asistencia a la Víctima

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen eta Justiziarikiko
Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos
y Cooperación con la Justicia

horoskopoa

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra. Egunen batean jakingo dozu zergaitik berba egiten dozunean inork ez deutsu kasurik egiten. Bitartean, ez kezkatu.

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra. Garai onak ei datoz. Ahalegindu ondo aprobetxatzen. Osterantzean damutu egingo zara.

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra. Udara faltan botatzea normala izan leike, baina neguak badauko hotzaz aparte besterik. Ezetz topatu!

Cancer: ekainaren 21etik uztailearen 20ra. Hertzainek kantatzen ez eben legez, ekaitzaren ostean dator barea. Aro polita datortzu baina horregaitik ez pentsa bonolotoa tokatuko jatzunik.

Leo: uztailearen 21etik abuztuaren 23ra. Zenbat bidar galdetu behar dozu gauza bera? Ondo portatuta bakarrik ekarriko deutsu oparirik Olentze rok.

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra. Iretargiko lur sailak saltzen hasiak diralako munduaren amaiera datorrela pentsatzea ez daukozu, lagun. Hamaika gauza ikusteko jairo gareala jakin behar zenduan honez gero!

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra. Behingoz inork esan behar deutsu eta geuk egingo dogu: jendea zugandik apartatzen da daukozun abots zantar horrekin behin eta berriz kanta ta kanta zabiltzelako. Hago ixilik, mesedez!

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra. Artaldeko ardi baltzen bila dabilta. Normala da, beraz, lo hartzerakoan kontaktzen hasita denak ez badozuz topatzen.

Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra. Zeure urtebetetzean aurreko urtean baino zeozer gehiago estiratuko zara, ezta?

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra. Sasoi ederrak etortekotan dagoz. Kasu egin bihotzari eta ez egizu ito edari alaigarriez.

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra. Eutsi zeure bizimoduari, ez egin kasurik zeure seme-alabek esanari.

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra. Osasuna, maitasuna eta dirua barra barra datoz zuregan. Kontuz ez zaitzaten zanpa!

agenda

ABENDUAREN 5-10:
DURANGOKO EUSKAL LIBURU
ETA DISKA AZOKA.

ABENDUAREN 8:
BENITO LERTXUNDI.
BARAKALDO ANTZOKIA.
TOPAGUNEAREN ESKUTIK.

ABENDUAREN 16:
UMEENTZAT URTEALDIA:
GASTEIZERA PATINATZERA.
TXITXIRIBITZ TALDEA.

ABENDUAREN 19:
HITZALDIA. "NUESTROS MAYORES
EN NUESTRA SOCIEDAD".
SANTUTXUKO MARIA REINA ARETOA.
SANTUTXU-BOLUETAKO KRISTAU
KOMUNITATEEK ANTOLATUA.

ABENDUAREN 21:
SANTO TOMAS MERKATUA BILBON.

ABENDUA OSOAN ZEHAR:
BILBAO 1860-1895
ARGAZKI ERAKUSKETA.
EUSKAL MUSEOA.

ABENDUAREN 6-10:
EGUZKILORE MENDI TALDEAREN IRTEERA
IPARRALDERA.
IPARLA ETA BEHARIA.

ABENDUAREN 7:
EGUNKARIAREN EGUNA. DURANGO.

ABENDUAREN 13:
AURORA BELTRAN.
EUSKALDUNA JAUREGIAN.

ABENDUAREN 17:
EGUZKILORE MENDI TALDEAREN INDDABA
JANA HAMARGARREN URTEURRENA DELA ETA.

bertan-ek

**Administrari bat
behar du**

**MAHATSERRIKO HERRI ALDIZKARI
euskaldunaren administrazio
eta publizitate lanak bere gain
hartu beharko ditu.
Kontratua egingo zaio.
Dedikazio partziala eskatzen da.
Interesatuak deitu
94. 473.54.48
telefono zenbakira.**



*Orbelak airez aire,
Ipartxo dultzia, ipartxo dultzia
Landamin ederretik
Doian errekoa, doian errekoa.*

Herrikoia.